A5429




# azkenean iritsi da
# Altzaren garaia

**EAJ/PNVren proposamena**

EAJ PNV
**Udal Taldea**
Donostia

# 1. Altzak biziberritze plan orokorra behar du

Altzak hiriko gainontzeko auzoek duten garrantzi bera du; eta udalak aintzat hartu eta haiekin bezalaxe jokatu beharko luke. Ezin da bereizketa/diferentzia gehiagorik egin. Ez dago lehen eta bigarren mailako auzorik. Hiriak anexioaren une beretik du zor historikoa Altzarekin, eta behin betiko kitatu behar du zor hori. Altza ezin da hiriaren modernizaziotik at gelditu. Altza modernizatzeko eta duintzeko garaia iritsi da. Horixe da EAJ/PNV taldeak bere egiten duen konpromisoa eta erronka.

Baina errezeta bakarra dago altzatarrek amesten duten egoera hori lortzeko: gaur egun Altzak bizi dituen arazoei modu orokorrean heltzea. Eta horretarako adabakiak eta irtenbide partzialak ez dira nahikoak.



Altzak ELEMENTU asko ditu bere alde. Gutxi dira Donostian Altzak duen elkarte-bizitza duten auzoak. Inbidia emateko modukoak dira Altzako elkarteek irtenbideak bilatzeko dituzten dinamismoa eta inplikazio maila. Areago duten kontestu zaila ezagututa.

Hala ere, altzatarrek erakutsi duten jarrera positiboa izanagatik, Altzak egin dituen aldarrikapen guztiz lojikoei ez zaie udaletik behin ere erantzun egokirik eman.

Dudarik ez dago hainbat hobekuntzari ekin zaiela; altzarren bizi-kalitatea onduko duten hobekuntzak, hain zuzen. Gure taldea horiek egitearen alde azaldu da, Altzarentzat onuragarria da edozeren alde beti azalduko den bezalaxe.

Hobekuntza horiek, ordea, ez dira aski, Altzaren arazoak kontaezinak baitira. Horrela jokatuta, zaila da komunitate honek dituen beharrei erantzutea. Altzak arazoak ditu, eta ez nolanahikoak: irisgarritasuna, hirigintzako degradazioa, zerbitzu falta, segurtasunik eza. Arazo horien munta handiak orain arte martxan jarri ez diren irtenbideak eskatzen ditu.





Jokatzen duen bezala jokatuta, Elorzaren taldeak sekula ezin izango ditu hamarkada luzeetan Altzak pilatu dituen arazoak konpondu; arazo horiek Donostiako Udalak Altza baztertu eta ahaztu duelako sortu direlako. Hobekuntzak hobekuntza, egiturazko gabeziak hortxe daude, planteamendu okerrak berak galarazten baitu arazo horiek konpontzea.

Ez dugu arinegi jokatu nahi. Horregatik, zilegia den kritikarekin batera, AUKERA BAT eskaintzen dugu.

## Gure aukera

Altzak aurpegia garbitu diezaiotela baino gehiago behar du. Auzoak hiriko beste auzoek duten kalitate-maila bera izango badu, Udalak ondo bideratutako jarduera multzoa behar du, denboran zehar iraungo eta baliabide nahikoa izango dituena.

# 2. Berri ona: Altzak behar duen plana izango du azkenean

## Zer da Biziberritze Plan Orokorra?

Altzaren arazoei ikuspegi orokorretik helduko dien plana, jarduera programa osoa eta horiek bideratzeko aurrekontuak jasoko dituena, eta bere baitan auzoa biziberritzen ahalbideratuko duten jarduera puntualak, hala nola, Lardi-Alde, Auditz-Akular, Herrera edo Jolastokieta, edukita, jarduera puntual horiek edo beste batzuk baino haratago doan plana.

EAJ/PNV taldeak uste du izaera honetako Biziberritze Plan bat diziplina anitzeko talde batek egin behar duela; fidagarritasun tekniko osoa duten arkitektoek, urbanistek eta soziologoek osatutako taldea, hain zuzen. Altza azken hamarkadetan ezagutu dugun bezala ikusten ohitu gara, baina zerbait une jakin batean era jakin batean egoteak ez du esan nahi horrelakoa izan behar duenik, eta hori gaiaz ulertzen duenak baizik ezin du aldatu. Horrek ez du kentzen plana egitean bizilagunen partehartzea bermatu behar ez denik; izan ere partehartzea bideratzeko mekanismoak jarri behar dira martxan.





## Altzarentzako konponbidea iristear dago: Biziberritze Plan Orokorra

Aspaldiko aldarrikapena da; 2005eko martxoko Udalbatzak gehiengoz onartu baitzuen eskaera hori jasotzen zuen EAJ/PNVk aurkeztu zuen iniziatiba bat. Altzaren hobe beharrez, EAJ taldeak ezinbestekotzat jotzen du akordio hori bideratzea. Urtebetez egonean egon ondoren, azkenean Odon Elortzaren taldeak bat egin du gure taldeak berriro aurkeztu duen Mozioarekin.

Sekulan ez baino, berandu hobe. Urtebete galdu da, Udalbatzaren gehiengoaren erabakiari muzin eginez Elorzak Altza zigortu zuen, altzatarrei sinetsiarazi baitzien Altzan abian jarri dituen jarduera puntualak Plan Orokor baten barruan zeudela. Odonek ikuspegi alderdikoiez jokatu zuen eta horrela jokatuz kalte egin zien altzatarrei, denbora gehiago eman baitute bigarren mailako hiritarrak balira bezala.

EAJ/PNV erabat sinistuta dago, eta behin eta berriro hala eman du aditzera, PAMAren jarduerak adabakiak besterik ez zirela, beharrezkoak bai, baina adabaki soilak. Uste oso hori dugulako pentsatzen genuen eta dugu bidea beste bat dela: PLAN OROKOR bati ekin behar zaiola, alegia. Elorzak hasitako bideak ez zuen ber-

matzen denok Altzarako nahi ditugun helburuak beteko zirenik. Ordurko ogia eta hurrengorako gosea ziren; hori dela eta pozten gaitu benetan talde sozialistak gure Mozioaren alde egin izana. Bertan Altzan Biziberritze Plan Orokor bat abian jartzea eskatzen da, komunitate honek dituen arazoei –irisgarritasunari, eraikitako ondarearen birgaitzeari, esparru publikoei, hornikuntzei...– aurre egingo dien urte anitzeko finantzaketa izango duena.

## 3. Altzarentzako diru gehiago

Ordea, adierazpenek eta prentsaren titularrek baino, ekintzek uzten dituzte agerian bakoitzak zer nahi duen benetan.

Hala bada, Altzaren Biziberritze Plana egiten has zedin, 2005eko abenduan EAJ/PNV taldeak zuzenketa aurkeztu zion udal gobernuaren taldeak aurkeztu zuen aurrekontu-proposamenari.

Horixe da Altzarentzako Elorzak eta EAJ/PNVk nahi dutenaren arteko aldea. Elorzak papurrak ematen dizkio Altzari, baina guk uste dugu Altzak begirune handiagoa merezi duela.

## 4. EAJ/PNVk Auditz-Akularren desblokeatzea ahalbideratu zuen

Hiriaren gobernuan ez bagaude ere, EAJ/PNVk Auditz-Akularren desblokeatzea ahalbideratu zuen, gure lehentasuna Altzaren onura eta interesa direlako.



## 5. Gure proposamenak

### Altzarentzako barrutia

Donostiako udalean kudeatzeko eta erabakitzeko ahalmena izango duen organo bat behar du Altzak. Eskualdeari eragiten dioten udal zerbitzuak kudeatzeko eskumenak izango dituen oinarrizko gunea, bere lana garatzeko giza-baliabide zein baliabide ekonomiko eta material nahikoak izango dituena. Horixe da gure auzoen interesak identifikatzeko eta defenditzeko aukera bakarra.

## Segurtasuna

Altzan udaltzainen falta sumatzen da. Horren inguruan kexa asko daude: bide-segurtasunik eza, delitoen areagotzea, segurtasun eza... Altzak komunitatea egoki zaindu-ta egongo dela bermatuko duen Udaltzaingoaren inspekzio ordetza behar du.

## Hornikuntza eta elkarteentzako baliabide gehiago

Hona hemen paradoxa: Altzan hiriko beste inon baino entitate gehiago daude, era guztietakoak, eta horietako askok bai hirian eta bai komunitatean presentzia aktibo garrantzitsua dute; baina, aldi berean, Udalak hornikuntza zein udal esparru gutxien dituen hiriko zonaldea da.

Altzan egingo diren eraikin berrietan elkarteei guneak uztea proposatzen dugu, bai eta "elkartegi" bat martxan jartzea ere. Elkartegia elkarteen beharrei erantzuteko azpiegitura egokia duen gunea da.

## San Marcoseko zabortegia ixtea

Altzak urteetan nozitu ditu San Marcosen zabortegia izatearen ondorioak. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorrak aurreikusten zuen zabortegia 2006. urtean ixtea, baina Odon Elorzaren politika arduragabea dela medio, itxiera arriskuan egon da. Alkateak bi urtez eragotzi du zaborren tratamendurako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorrean proposatzen ziren irtenbideak martxan jartzea, eta ezinbestekoa zen hori egitea zabortegia ixteko. Kritikak kritika, prozesua desblokeatzeko gure taldeak zortzi iniziatiba eraman ditu Udalbatzara bi urte hauetan. Zorionez, zabortegia urte honen amaieran itxiko da.





## Hiritarren benetako partehartzeari bultzada

Altzan elkarte asko dago eta horrek agerian uzten du Altzako bizilagunak herritarren partaidetzaren eredu direla. Gure ustez, ordea, haratago joan eta herritarren partehartzea bultzatu behar da. Baina egiazko partaidetza, bizilagunei, beren elkarteei eta gizarte-agenteei partehartzearen protagonista izaten aukera eman behar zaie, marketing politikoa eta alderdien interesak alde batera utzita.

## Seguridad

En Altza se echa en falta la presencia de la guardia municipal. Son numerosas las quejas en este sentido: falta de seguridad vial, aumento de delitos en la zona, mayor sensación de inseguridad... Altza necesita una Subinspección de la guardia municipal que garantice la adecuada atención de la comunidad, por parte de este cuerpo.

## Mayor dotación de equipamientos y recursos para las asociaciones

Es paradójico que, siendo Altza en la actualidad la zona de la ciudad con mayor número de entidades de todo tipo, muchas de las cuales tienen un presencia activa importante tanto en la comunidad como a nivel de ciudad, sea a la vez la zona de la ciudad en la que menos equipamientos y espacios municipales tiene el Ayuntamiento.

Proponemos la cesión de espacios a las entidades, en las nuevas edificaciones que se van a desarrollar en Altza, así como la puesta en marcha de un "elkartegi", un centro que disponga de la infraestructura adecuada para dar respuesta a las necesidades de las asociaciones.

## Eliminación del vertedero de San Marcos

El barrio de Altza ha sufrido durante muchos años las consecuencias de tener un vertedero en San Marcos. El Plan Integral de Residuos Urbanos de Gipuzkoa contemplaba su cierre en el año 2006, pero este cierre ha estado a punto de no poder llevarse a cabo, debido a la política irresponsable de Odón Elorza. El Alcalde ha paralizado durante dos años la puesta en marcha de las soluciones que para el tratamiento de las basuras se proponían en el PIGRUG, y ésa era una condición indispensable para cerrar el vertedero. A pesar de las críticas, nuestro grupo ha llevado adelante hasta ocho iniciativas al Pleno en estos dos años, con el fin de conseguir desbloquear el proceso. Afortunadamente, el vertedero se clausurará a finales de este año.





## Impulso de un proceso real de participación ciudadana

Los vecinos y vecinas de Altza son un modelo de participación ciudadana y así lo demuestra el gran número de asociaciones que conviven en la zona. Sin embargo, pensamos que hay que ir más allá y potenciar aún más la participación ciudadana. Pero de verdad, más allá de operaciones de marketing político y de intereses partidistas, dar pie a que las vecinas y vecinos, sus entidades y agentes sociales sean los protagonistas del mismo.

A5429



# azkenean iritsi da Altzaren garaia

EAJ/PNVren proposamena

EAJ PNV

Udal Taldea
Donostia

# 1. Altzak biziberritze plan orokorra behar du

Altzak hiriko gainontzeko auzoek duten garrantzi bera du; eta udalak aintzat hartu eta haiekin bezalaxe jokatu beharko luke. Ezin da bereizketa/diferentzia gehiagorik egin. Ez dago lehen eta bigarren mailako auzorik. Hiriak anexioaren une beretik du zor historikoa Altzarekin, eta behin betiko kitatu behar du zor hori. Altza ezin da hiriaren modernizaziotik at gelditu. Altza modernizatzeko eta duintzeko garaia iritsi da. Horixe da EAJ/PNV taldeak bere egiten duen konpromisoa eta erronka.

Baina errezeta bakarra dago altzatarrek amesten duten egoera hori lortzeko: gaur egun Altzak bizi dituen arazoei modu orokorrean heltzea. Eta horretarako adabakiak eta irtenbide partzialak ez dira nahikoak.



Altzak ELEMENTU asko ditu bere alde. Gutxi dira Donostian Altzak duen elkartebizitza duten auzoak. Inbidia emateko modukoak dira Altzako elkarteek irtenbideak bilatzeko dituzten dinamismoa eta inplikazio maila. Areago duten kontestu zaila ezagututa.

Hala ere, altzatarrek erakutsi duten jarrera positiboa izanagatik, Altzak egin dituen aldarrikapen guztiz lojikoei ez zaie udaletik behin ere erantzun egokirik eman.

Dudarik ez dago hainbat hobekuntzari ekin zaiela; altzarren bizi-kalitatea onduko duten hobekuntzak, hain zuzen. Gure taldea horiek egitearen alde azaldu da, Altzarentzat onuragarria da edozeren alde beti azalduko den bezalaxe.

Hobekuntza horiek, ordea, ez dira aski, Altzaren arazoak kontaezinak baitira. Horrela jokatuta, zaila da komunitate honek dituen beharrei erantzutea. Altzak arazoak ditu, eta ez nolanahikoak: irisgarritasuna, hirigintzako degradazioa, zerbitzu falta, segurtasunik eza. Arazo horien munta handiak orain arte martxan jarri ez diren irtenbideak eskatzen ditu.





Jokatzen duen bezala jokatuta, Elorzaren taldeak sekula ezin izango ditu hamarkada luzeetan Altzak pilatu dituen arazoak konpondu; arazo horiek Donostiako Udalak Altza baztertu eta ahaztu duelako sortu direlako. Hobekuntzak hobekuntza, egiturazko gabeziak hortxe daude, planteamendu okerrak berak galarazten baitu arazo horiek konpontzea.

Ez dugu arinegi jokatu nahi. Horregatik, zilegia den kritikarekin batera, AUKERA BAT eskaintzen dugu.

## Gure aukera

Altzak aurpegia garbitu diezaiotela baino gehiago behar du. Auzoak hiriko beste auzoek duten kalitate-maila bera izango badu, Udalak ondo bideratutako jarduera multzoa behar du, denboran zehar iraungo eta baliabide nahikoa izango dituena.

# 2. Berri ona: Altzak behar duen plana izango du azkenean

### Zer da Biziberritze Plan Orokorra?

Altzaren arazoei ikuspegi orokorretik helduko dien plana, jarduera programa osoa eta horiek bideratzeko aurrekontuak jasoko dituena, eta bere baitan auzoa biziberritzen ahalbideratuko duten jarduera puntualak, hala nola, Lardi-Alde, Auditz-Akular, Herrera edo Jolastokieta, edukita, jarduera puntual horiek edo beste batzuk baino haratago doan plana.

EAJ/PNV taldeak uste du izaera honetako Biziberritze Plan bat diziplina anitzeko talde batek egin behar duela; fidagarritasun tekniko osoa duten arkitektoek, urbanistek eta soziologoek osatutako taldea, hain zuzen. Altza azken hamarkadetan ezagutu dugun bezala ikusten ohitu gara, baina zerbait une jakin batean era jakin batean egoteak ez du esan nahi horrelakoa izan behar duenik, eta hori gaiaz ulertzen duenak baizik ezin du aldatu. Horrek ez du kentzen plana egitean bizilagunen partehartzea bermatu behar ez denik; izan ere partehartzea bideratzeko mekanismoak jarri behar dira martxan.





### Altzarentzako konponbidea iristear dago: Biziberritze Plan Orokorra

Aspaldiko aldarrikapena da; 2005eko martxoko Udalbatzak gehiengoz onartu baitzuen eskaera hori jasotzen zuen EAJ/PNVk aurkeztu zuen iniziatiba bat. Altzaren hobe beharrez, EAJ taldeak ezinbestekotzat jotzen du akordio hori bideratzea. Urtebetez egonean egon ondoren, azkenean Odon Elortzaren taldeak bat egin du gure taldeak berriro aurkeztu duen Mozioarekin.

Sekulan ez baino, berandu hobe. Urtebete galdu da, Udalbatzaren gehiengoaren erabakiari muzin eginez Elorzak Altza zigortu zuen, altzatarrei sinetsiarazi baitzien Altzan abian jarri dituen jarduera puntualak Plan Orokor baten barruan zeudela. Odonek ikuspegi alderdikoiez jokatu zuen eta horrela jokatuz kalte egin zien altzatarrei, denbora gehiago eman baitute bigarren mailako hiritarrak balira bezala.

EAJ/PNV erabat sinistuta dago, eta behin eta berriro hala eman du aditzera, PAMAren jarduerak adabakiak besterik ez zirela, beharrezkoak bai, baina adabaki soilak. Uste oso hori dugulako pentsatzen genuen eta dugu bidea beste bat dela: PLAN OROKOR bati ekin behar zaiola, alegia. Elorzak hasitako bideak ez zuen ber-

matzen denok Altzarako nahi ditugun helburuak beteko zirenik. Ordurko ogia eta hurrengorako gosea ziren; hori dela eta pozten gaitu benetan talde sozialistak gure Mozioaren alde egin izana. Bertan Altzan Biziberritze Plan Orokor bat abian jartzea eskatzen da, komunitate honek dituen arazoei –irisgarritasunari, eraikitako ondarearen birgaitzeari, esparru publikoei, hornikuntzei...– aurre egingo dien urte anitzeko finantzaketa izango duena.

# 3. Altzarentzako diru gehiago

Ordea, adierazpenek eta prentsaren titularrek baino, ekintzek uzten dituzte agerian bakoitzak zer nahi duen benetan.

Hala bada, Altzaren Biziberritze Plana egiten has zedin, 2005eko abenduan EAJ/PNV taldeak zuzenketa aurkeztu zion udal gobernuaren taldeak aurkeztu zuen aurrekontu-proposamenari.

Horixe da Altzarentzako Elorzak eta EAJ/PNVk nahi dutenaren arteko aldea. Elorzak papurrak ematen dizkio Altzari, baina guk uste dugu Altzak begirune handiagoa merezi duela.

# 4. EAJ/PNVk Auditz-Akularren desblokeatzea ahalbideratu zuen

Hiriaren gobernuan ez bagaude ere, EAJ/PNVk Auditz-Akularren desblokeatzea ahalbideratu zuen, gure lehentasuna Altzaren onura eta interesa direlako.



# 5. Gure proposamenak

## Altzarentzako barrutia

Donostiako udalean kudeatzeko eta erabakitzeko ahalmena izango duen organo bat behar du Altzak. Eskualdeari eragiten dioten udal zerbitzuak kudeatzeko eskumenak izango dituen oinarrizko gunea, bere lana garatzeko giza-baliabide zein baliabide ekonomiko eta material nahikoak izango dituena. Horixe da gure auzoen interesak identifikatzeko eta defenditzeko aukera bakarra.

## Segurtasuna

Altzan udaltzainen falta sumatzen da. Horren inguruan kexa asko daude: bide-segurtasunik eza, delitoen areagotzea, segurtasun eza... Altzak komunitatea egoki zainduta egongo dela bermatuko duen Udaltzaingoaren inspekzio ordetza behar du.

## Hornikuntza eta elkarteentzako baliabide gehiago

Hona hemen paradoxa: Altzan hiriko beste inon baino entitate gehiago daude, era guztietakoak, eta horietako askok bai hirian eta bai komunitatean presentzia aktibo garrantzitsua dute; baina, aldi berean, Udalak hornikuntza zein udal esparru gutxien dituen hiriko zonaldea da.

Altzan egingo diren eraikin berrietan elkarteei guneak uztea proposatzen dugu, bai eta "elkartegi" bat martxan jartzea ere. Elkartegia elkarteen beharrei erantzuteko azpiegitura egokia duen gunea da.

## San Marcoseko zabortegia ixtea

Altzak urteetan nozitu ditu San Marcosen zabortegia izatearen ondorioak. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorrak aurreikusten zuen zabortegia 2006. urtean ixtea, baina Odon Elorzaren politika arduragabea dela medio, itxiera arriskuan egon da. Alkateak bi urtez eragotzi du zaborren tratamendurako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorrean proposatzen ziren irtenbideak martxan jartzea, eta ezinbestekoa zen hori egitea zabortegia ixteko. Kritikak kritika, prozesua desblokeatzeko gure taldeak zortzi iniziatiba eraman ditu Udalbatzara bi urte hauetan. Zorionez, zabortegia urte honen amaieran itxiko da.





## Hiritarren benetako partehartzeari bultzada

Altzan elkarte asko dago eta horrek agerian uzten du Altzako bizilagunak herritarren partaidetzaren eredu direla. Gure ustez, ordea, haratago joan eta herritarren partehartzea bultzatu behar da. Baina egiazko partaidetza, bizilagunei, beren elkarteei eta gizarte-agenteei partehartzearen protagonista izaten aukera eman behar zaie, marketing politikoa eta alderdien interesak alde batera utzita.

# Cuestionario

**Señala el lugar en el que vives y valora las afirmaciones.**
*** los puntos suspensivos sustituyen tu lugar de residencia.**

| Casco de Altza | Herrera | Larratxo | Zona del Parque de Harria | Buenavista | Oleta | Molinao |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1. **... es un buen sitio para vivir.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

2. **El Ayuntamiento mantiene limpia/o ...**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

3. **En ... hay una oferta deportiva adecuada.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

4. **En ... es fácil encontrar sitio para aparcar.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

5. **El ayuntamiento presta suficiente atención a ...**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

6. **... es un lugar tranquilo respecto al ruido.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

7. **... es un lugar seguro, respecto al tráfico.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

8. **El Ayuntamiento presta tanta atención a ... como a cualquier otro barrio.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

9. **... es un lugar seguro para vivir.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

10. **... cuenta con adecuados servicios municipales.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

11. **En ... se circula con facilidad.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

12. **... cuenta con una adecuada oferta cultural.**

☐ totalmente de acuerdo ☐ de acuerdo ☐ ni de acuerdo ni en desacuerdo ☐ en desacuerdo ☐ totalmente en desacuerdo

**Rellena el cuestionario y envíalo por correo utilizando el sobre que te adjuntamos.**
También puedes rellenarlo por internet: www.altza.org
**Más información: © 943 578 198 / Batzoki de Altza (Txapinene kalea, 3º bajo)**

# Galdeketa

**Markatu zeure bizitokia eta baloratu ondoko baieztapenak.**
*** etenpuntuek zu bizi zaren tokia ordezkatzen dute.**

☐ Altza Gaina ☐ Herrera ☐ Larratxo ☐ Harrialdea ☐ Buenavista ☐ Oleta ☐ Molinao

1. **... toki ona da bizitzeko.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

2. **... ondo garbi du Udalak.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

3. **...k kirol eskaintza egokia du.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

4. **...n erraz aurkitzen da aparkatzeko tokia.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

5. **...ri Udalak nahiko arreta eskaintzen dio.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

6. **... toki lasaia da zaratei dagokienez.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

7. **... toki segurua da trafikoari dagokionez.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

8. **Udalak ...ri Donostiako beste auzoei adinako arreta eskaintzen dio.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

9. **... bizitzeko toki segurua da.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

10. **...k udal zerbitzu egokiak ditu.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

11. **...n erraz zirkulatzen da.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

12. **...k eskaintza kultural egokia du.**

☐ erabat ados ☐ ados ☐ ez ados / ez kontra ☐ kontra ☐ oso kontra

**Galdeketa bete eta postaz bidali ezazu, mesedez, emandako gutunazala erabiliz.**
Hau guztia interneten bidez ere egin dezakezu: www.altza.org
**Informazio gehiago: ✆ 943 578 198 / Altzako Batzokia (Txapinene kalea, 3. behea)**